

IBAIZABAL

SPUIN UNIBERTSALAK



Herrikoiak

J.A.Tellaetxe

Zorionak Bilduma



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994

ISBN: 84-7992-560-4

Legezko gordailua: BI-2335-94

Bilduma-diseinua: C.Monzón eta J.A. Tellaetxe

Tailer grafikoak: ZURE S.A.

SPUIN UNIBERTSALAK

Egilea: **Herrikoiak**

Marrazkiak: **J. A. Tellaetxe Isusi**

Euskerazko moldatzailea: **Sabin Barruetabeña**



UMEENTZAKO
BIBLIOTEKA
INFANTIL
KULTUR ETXEA-BASAURI

R.10.999

Aurkibidea

Krokodiloaren Malkoak.....	5
Marmoka eta Tximua.....	13
Leloa eta Iruzurtia.....	25
Artoaren Jatorria.....	29
Sua Zeruan.....	33
Zer dala eta itzi eutsan astoak kantatzeari.....	38

KROKODILOAREN MALKOAK

Buai krokodiloak tigre burua jan ebanetik hiru egun igaro ziran eta gose zan barriro ere. Krokodiloa bizi zan ibaian arrain txiki-txikiak besterik ez egoan; izan ere, Buaik aspaldi janak ebazan arrain handi guztiak.

Hau ikusita krokodiloak beste leku batera joatea erabagi eban ehiza egite-ra. Entzuna eukan mendebalderantz bazala ibai bat arrain handi asko eta basa antzara eta ahate ugari eukazana.

Goizean goiz Buaik ibai ertzera egin eban uger eta mendebalderantz abiatu zan. Herrestan ibili zan bat, bi, hiru... orduz, baina ez eban ibairik aurkitu. Eguzkiak gero eta indar handiagoz berotzen eban eta krokodiloaren tripea txingar gainean balego lez egoan erreten. Krokodilo zaharra txarto sentitu zan bero kiskalgarriagaitik. Soslai etzun zan eta holantxe geratu zan ahoa zabal-zabalik eballa. Eguerdia zan eta eguzki-izpiak oraindino indartsuago ziharduen berotzen, lurrari gori-gori egoan. Krokodiloak hiltzeko zorian egoala sentitu eban eta bildurrez garrasika hasi zen.

Mutil gazte ausart bat igaro zan une haretan gertutik. Krokodiloaren kexuak entzun ebazan eta zergaitik ziharduan garrasika itaundu eutsan.

Krokodiloak garrasi egiteari itzi eta oso ahots eztiak esan eban:

—*Gazte ausart hori, zure hankak indartsuak dira eta zure besoak sendoak. Lur gaineko gizonik indartsuena zara. Eroan naizu ibairaino eta uretatik oso perla baliotsua atarako dot zuretzat.*

Mutila pobrea zan eta pentsatu eban: “*Perla salduko dot eta nire gurasoak ez dabe gebiago goserik izango*”.

—*Ondo dago, Buai zaharra, bizkarrean eroango zaitut ibairaino* —esan eban mutilak.

Hau esan, krokodilo zaharra bizkarrean hartu eta abiatu egin zan. Krokodiloa handia eta astuna zan. Halan ere, gazteak agindutakoa betetea erabagi eban. Eguzki-izpi beroen pean ibili zan, ortozik, lur kiskalgarria zapalduz. Bizkarra mailatu egiten jakon zama haren azpian, baina gazteak aurrera jarraitu eban.

Azkenean ibai ertzera heldu zan eta krokodiloa lurrean itzi eban.

Buaik esan eutsan orduan:

—*Hain nago abul, ezin dot urrats bat ere emon. Arren, hartu naizu barriro bizkarrean, sartu ibaira eta itzi naizu uretan.*

Gazte zintzoak krokodiloa bizkarrean hartu eban, urrats batzuk emon eta uretan sartu zan beragaz. Buai uretan itzi eta esan eban:

—*Bete dot zure nahia. Bete zuk orain agindutakoa eta emoidazu perlea.*

Hau esan eta gero, krokodiloaren ezkerreko begitik malko lodi bat isurtzen ikusi eban.



—Zergaitik egiten dozu negar, Buai? —esan eban gazteak kezkatuta—. Arriskuren batek mehatxatzen zaitu?

—Ez, ibaian ez naz ezeren bildur—erantzun eutsan krokodiloak—. Giza-kiak nire bibotzaren ontasuna inoiz estimatuko ez dabelako egiten dot negar. Orain, esate baterako, burua jan neikizu, baina ez dot egingo. Hanka bat baka-rrik jango deutsut.

—Zer? —esan eban mutilak hasarre—. Heriotzetik salbatu zaitut eta zuk, agindutakoa bete beharrean, bankea...

—Ixo!—egin eban oiuhu krokodiloak. Eta bere eskumako begitik malko lodi bat isuri zan—. Isildu zaitez! Zelan ez dot ba negar egingo zeuk ere nire ontasuna estimatzen ez badozu?

Krokodiloak ozen eta kexati egiten eban negar, eta hotsak Bangau lertxoin azkarra iratzartu eban.

—Zu!—egin eban oiuhu hasarre—. Zergaitik diharduzu garrasika?


Mutilak gertatutakoa kontatu eutsan eta amaitu ebanean, lertxoinak buruari eragin eta esan eban:

—Inoiz ezingo dot sinestu hain krokodilo astuna bizkarrean ekarri dozunik.

Buairi lertxoinaren berbak gustatu egin jakozan eta esan eban:

—Jakina, gizon honek guzurretan dihardu! Ni ez naz egun osoan hementdik mogidu.

Lertxoinak esan eban:



—*Begira gazte, dinozuna egia dala frogatzeko hau da egin behar dozuna: hartu eizu krokodiloa barrero bizkar gainean eta eroaizu aurkitu dozun tokira. Egiten badozu, sinestuko deusut, baina ezin badozu, garbi geratuko da guzur-ti hutsa zarala eta Buai arrazoiz jango deus burua.*

Krokodiloa berba hareek entzutean asko poztu zan. Ziur egoan mutilak ezingo ebalá bizkarrean bigarren aldiz eroan.

Baina mutila, ikaragarritzko ahalegina eginez, krokodiloa bizkarrean hartu eta basora abiatu zan. Lertxoina euren atzetik joian behin eta barrero gauza bera esanez:

—*Inoiz ezingo dot sinestu hain krokodilo astuna basora eroan daikezunik.*

Baina gazteak aurrera jarraitzen eban. Goizean krokodiloa ikusi eban lekura heldu ziranean Buai lurrean itzi eta esan eban:

—*Hor dozu, lertxoin anderea. Hementxe hartu dot gaur goizean krokodiloa eta eroan egin dot ibaira.*

Orduan lertxoinak esan eban:

—*Orain sinesten deusut!*

Krokodiloak oso sakon hartu eban arnasea, irribarre egin eban bere ahotzar motzagaz eta esan eban:

—*Gazte ausart hori, eroan naizu barrero ibaira eta perla bat ezezik bi emongo deusudaz.*

Gazteak erantzun eban:



—Behin guzurra esateko kapaz dana, bi eta hiru bider esateko ere kapaz da. Ez dot zure berbetan sinesten. Hementxe geratuko zara eta hementxe hilgo zara. Agur.

· Eta lertxoinari eskerrak emon ondoren, mutila joan egin zan.

Orduan krokodiloaren begietatik malko lodi batzuk isuri ziran eta hasperen egin eban:

—Ez, gizakiak inoiz ere ez dabe nire bihotzeko ontasuna estimatuko.

Horregaitik gizakiak pertsona iruzurtiren bat negarrez ikusten dabenean beti esaten dabe:

—Ez sinestu horren malkoetan, krokodilo-malkoak dira eta.



MARMOKA ETA TXIMUA

*O*rain dala urte asko itsasoaren barruan dragoi bat bizi zan bere emazteagaz jauregi eder baten. Itsasoko arrain eta animalia guztien buruzagia zan, eta bere aginpidea autortzen ez eutsan animalia bakar bat ere ez egoan.

Baina egun baten dragoiaren emaztea gaisotu egin zan eta ohean geratu behar izan eban. Osagileak ahalegin handiak egin arren, ez eben bere osasuna hobetzeagorik lortu.

Dragoiaren emaztea gero eta okerrago egoan eta inork ez ekian hurrengo egunera arte bizirik iraungo ete eban.

Dragoiak, oso kezkatuta, ez ekian ia zer egin eta bere erreinuko biztanle guztiei deitu eutsen aholku eske. Baina inork ez eban jakin erremediorik emoten. Orduan olagarroa hurreratu zan, Erregeren aurrean makurtu eta esan eban:

—Toki guztietan izan naz eta asko dakit lur gainean bizi diran gizaki eta piztiei buruz. Gaisotasun hau osatzeko onena bizirik dagoan tximu baten gibela dala entzun dot.

*—Eta non eskuratu daiteke?—*itaundu eban Erregek.

Hegoalderantz Sarugasima irla dago, Tximuen Irla deitzen deutesie. Bertan

tximu mordo ikaragarriak bizi dira. Baten bat bialdu behar da bertara tximu bat harrapatu daian.

Irlara nor bialdu hasi ziran pentsatzen. Orduan legatzak esan eban:

—*Lan hau ondoen egin daikena marmokea da. Motza da, baina hanka asko daukaz.*

Argitu beharrekoa da aldi haretan marmokea ez zala orain dan lakoa. Hazur eta hanka indartsuak eukazan eta uger egiteaz gain tatarrez ibili eitekean lurrean narrazti bat lez.

Marmokeari deitu eta Tximuen Irlara joatea agindu eutsien.

Itsasoko biztanleen artean, marmokea ez zan, zalantza barik, argiena. Dragoiak tximu bat ekarteko agindu eutsan, zelan ekarri behar eban ere esan eutsan, baina marmokeak ez eutsan ondo ulertu.

Marmokeak guztiei itauntzen eutsen:

—*Esaidazue, zelangoa da tximua?*

Arrainak esaten eutsien:

—*Mutur gorria dauka eta oso buztan luzea. Zubaitzen adarretan ibilten da batetik bestera saltoka eta asko gustatzen jakoz gaztainak eta mizpirak.*

—*Eta zelan harrapatu daiket?*

—*Atzipetu egin behar dozu.*

—*Eta zelan atzipetuko dot?*

—*Gebien gustatzen jakonari buruz berba egiozu. Dragoiaren jauregia gauza gozoz beteta dagoala esan. Esaiozu zeugaz etorri eragingo deutson zeozer.*



15

15

—*Eta zelan ekarriko dot jauregira?*

—*Ekarri eizu bizkarrean.*

—*Baina oso astuna izango da!*

—*Ez dago beste erremediorik, ekarri egin behar dozu. Dragoiak agindu dau.*

—*Ondo dago, abaleginduko naz* —esan eban marmokeak eta uger eginez joan zan Sarugasima irlarantz.

Berehala ikusi eban irla bat urrun.

—*Sarugasima izango da* —esan eban marmokeak. Itsasertzera heldu zan, ingurura begiratu eta bere jakinmina biztu eban zeozer ikusi eban: ez oso urrun pinu baten adarretan mutur gorria eta buztan luzea eukan animalia bat ebilen zabuka.

“Tximu bat izango da”, pentsatu eban marmokeak. Arrastaka astiro-astiro zuhaitzera hurreratu eta esan eban:

—*Kaixo, tximua. Oso egun ederra gaurkoa, ezta?*

—*Oso ederra* —erantzun eutsan tximuak— *Baina zelan ez zaitut lehenago gure irlan ikusi? Nondik zatoz?*

—*Marmokea naz eta itsas-dragoia jaun eta jabe dan erreinutik nator. Gaur eguraldi ona egoala eta ibilalditxo bat egitea erabagi dot. Sarugasima leku bikaina da eta oso ederra.*

—*Bai, hemen oso ondo egoten da. Lekua oso ederra da eta gaztaina eta mizpiraz beteta dago. Ziur asko ez dozu beste inon hainbeste aurkituko* —esan eban tximuak goitik marmokeari begira.

Berba honeek entzutean marmokea barre algaraka hasi zan, zeozerk barre-gura itzela emon izan baleutso lez.



—*Arrazoia dozu, Sarugasima leku ederra da. Baina dragoiaren jauregia ikusi barik zagoz barro zure irlaz. Gure itsas azpiko erreinua erakutsi gura neuskizu. Jauregi osoa urre, zidar eta koral ederrez egina dago. Lorategia barriz, gaztaina, mizpira eta bestelako fruituz beteta dago. Gura dozuzan guztiak hartu abal izango dozuz ban.*

Marmokeak berbetan ziharduan bitartean tximua zuhaitzetik jaitsi zan. Azkenean bere aldamenera heldu eta esan eutsan:

—*Holango toki baten egotea gustatuko litzakit.*

—*Gura badozu neugaz eroan zaikedaz.*

—*Baina ez dakit uger egiten!*

—*Bardin deutso, neuk eroango zaitut bizkarrean. Jezarri zaitetz.*

—*Ondo dago eskerrik asko, marmoka.*

Tximua marmokearen gainean jezarri zan eta uger joan ziran olatuen gainean.

Bide erdian tximuak itaundu eutsan:

—*Esaidazu marmoka, asko falta da dragoiaren jauregira heltzeko?*

—*Bai, oraindino apur bat falta da.*

—*Zeinen aspergarria dan bertaraino joatea!*

—*Jezarri nasai eta ondo eutsi.*

—*Kontuz, arren. Ez zaitetz bain azkar joan* —esan eban tximuak.

Jolasean ziharduela oso urrunera heldu ziran. Baina marmokea oso argia ez zanez, kaikuak halangoak, zera itaundu eutsan tximuari:



—Zuk badaukazu gibelik?

“Horixe itaun bitxia”, pentsatu eban tximuak.

—Jakina. Baina zergaitik arduratzen zara nire gibelaz bapatean?

—Ez, itaundutearren... Dana gibelean dago...

—Zer da dana?

—Ez jaramonik egin, berba egiteko era bat baino ez da.

Baina tximua ez zan nasaitu erantzun hau entzun ebanean. Marmokea bere gibelaz interesatuegia egoala iruditu jakon eta susmo txarra hartu eban. Horregaitik barrero itaundu eutsan:

—Baina zu, esaidazu zergaitik interesatzen jatzu nire gibela, esaidazu.

—Ez dakit zer egin, esan ala ez.

—Ez zalantzarik izan, esaidazu, arin.


—Ondo dago, esango deusut. Begiratu, orain dala gitxi dragoiaren emaztea gaisotu egin zan. Bizirik dagoan tximu baten gibela baino ezin dauala salbatu esaten dabe. Horregaitik joan naz irlara, zu atzipetu eta jauregira ekarteko. Ulertzen dozu orain zergaitik esaten neban dana gibelean egoala?

Hau entzutean tximua bildurrez zuri-zuri geratu zan. Baina pentsatu eban: “Itsasoan nagoala ezin dot ezer egin”.

Orduan esan eban:

—Nire gibela dragoiaren emaztea salbatu badaike, ados nago emoteko. Baina zergaitik ez deustazu lehenago esan? Ezer ez nekianez gibela irlan itzita etorri naz.

—Zer? Gibela irlan itzi dozula?



—*Jakina. Igota nengoan pinuaren adar batetik dindilizka dago. Ez dozu ikusi ala? Noizbehinka gibela kendu eta lehortzen jarri behar da..*

Marmokeak berba honeek entzun ebazanean etsi-etsian esan eban:

—*Hori besterik ez neban behar! Zertarako eroan behar zaitut dragoiaren jauregira? Zertarako balio dozu gibelik baga?*

Tximua, hori entzutean, asko poztu zan eta berba egiten jarraitu eban:

—*Neuri ere ez jat batere gustatzen jauregira ezelango opari barik heltzea. Parkatu hainbeste lan emoteagaitik, baina hobeto dozu ni barriro irlara eroatea; gibela hartu eta dragoia ikustera joango gara.*

—*Lehentxoago esan izan bazeunst!* —esan eban marmokeak.

Ez egoan beste erremediorik. Irlara itzuli ziran ugerian. Itsasertzera heldu baizen laster tximuak marmokearen bizkarretik salto egin eta zuhaitzera igo eban agudo. Eta hantxe geratu zan patxadan jezarrita.

—*Zu tximu, zer egiten dozu hor jezarrita? Hartu gibela eta jaitsi* —egin eutsan oihu marmokeak.

Baina tximua oraindino erosoago jarri eta barrez hasi zan:


—*Ezta pentsatu ere. Itzuli zeure etxera. Higuinduta nago itsasoko ibilal-ditxoez!*

Marmokea hasarre bizian egoan.

—*Eta zuk agindutakoa, zer?*

—*Zein tentela zaran, marmoka! Inork bere gibela emon behar deutsula us-te dozu ala? Gibela oparitzea bizitzeari agur esatea da. Ez, laguna, parkatu.*

Marmokeak benetan tentela izan zala ulertu eban eta ia beste erremediorik ez eukanez, dragoiaren jauregira itzuli zan.



Heltzean, itxaroten eukazan guztiak inguratu egin eben eta itaundu:

—*Eta, non dozu tximua? Lortu dozu gibelik?*

Marmokeak gertatu jakona kontatzea beste urtenbiderik ez eban izan.

Itsas-dragoia hasarretu egin zan.

—*Kirtena zara benetan! Nire agindua ez beteteagaitik zigortu egingo zaitut. Ene aginpekook, jo eizue marmokea nekatu arte, gorputzean hazur bat ere gelditzen ez jakon arte. Hazur barik biziko zara tentela izateagaitik!*

Itsasoko biztanle guztiak marmokearen gainean oldartu eta joka ekin eutsien.

Harrezkero marmokea hazur barik geratu da eta itsasoan leun eta bigun egi-ten dau uger.



LELOA ETA IRUZURTIA

*S*okatik hartuta gizon inozo batek bere astoa eroian. Astoa atzetik joian jabearen oinkadei jarraituz. Alproja bik ikusi eben eta batak esan eutsan besteari:

—*Astoa kendu baietz gizon horri.*

—*Eta zelan kenduko deusat?* —itaundu eutsan lagunak.

—*Hator neugaz eta ikusiko dok!* —erantzun eban lehenengoak.

Eta besteak jarraitu egin eutsan. Iruzurtia astoari hurreratu jakon, hedea askatu eta animalia bere lagunari emon eutsan. Gero berak jarri eban hedea saman eta ibiltzen jarraitu eban tentelaren atzetik bere laguna astoagaz nahikoa urrun egoala ikusi arte. Orduan geratu egin zan.

Eta inozoak sokatik tira egin eban, baina atzeko alprojak pausorik ez. Atzera begiratu eta hedea gizon baten buruari lotuta egoala ikusi ebanean itaundu eutsan:

—*Nor zara zu?*

Iruzurtiak erantzun eban:

—*Zeure astoa naz eta nire istorioa benetan tristea da! Kontatuko deusut. Nire ama oso emakume jakintsua da. Egun baten mozkor-mozkor eginda heldu*

nintzan etxera eta amak esan eustan: “Seme, eskatu eiozu parkamena Alabri, (Jaungoiko handiak gorde gaizala!), oraintxe bertan pekatu egin izanagaitik! Baina nik makila bat hartu eta jo egin neban. Berak madarikatu egin ninduan eta arrazoi horregaitik, Alabk, (Jaungoiko handiak gorde gaizala!), asto bilakatu eta zuregana bialdu ninduan, eta geroztik zeugaz egon naz. Baina gaur nire ama nitaz gogoratu da eta, errukiturik, nire alde zeozer egin gura izan dau, orduan otoitz egin dau eta Jaungoikoak nire gizaki itxurea emon deust barriro.

Eta leloak oihu egin eban orduan:

—Mundu honetan ez dago Alahren ahalmena eta indarra baino gauza handiagorik! Jaungoiko handi eta gorena! Arren, anaia, parkatu eidazu, denpora honetan egin deustudazan gauza guztiakaitik, zamalkatzeagaitik eta makilaz joteagaitik!

Ondoren iruzurtia askatu eta joaten itzi eban. Leloa etxera itzuli zan, kezka-
ti eta oso urduri. Eta bere emazteak itaundu eutsan:

—Zerk nabigabetzen zaitu? Eta non da astoa?

Eta leloak erantzun:

—Ez dakizu zelango istorio harrigarria. Kontatu egingo deustut.

Eta kontatu egin eutsan eta emazteak entzutean esan eban:

—Zein zoritxarrekoak garan! Alabk, gure Jaungoiko handiak zigortu egingo gaitu! Gugaz egon dan bitartean zelan behartu dogu guretzat lan egitera gu lako gizaseme bat?

Eta gizona luze egon zan etxean ezer egin barik. Orduan emazteak esan eutsan:




—Noiz arte egongo zara etxean ezer egin barik? Zoaz azokara eta erosi asto bat lanean laguntzeko.

Orduan leloa azokara joan eta astoei begira egoan, eta hara non ikusten dauan bere astoa salgai! Ezagutu ebanean hurreratu eta ahoa animaliaaren belarri ondoan jarrita esan eutsan:

—Errukarri hori! Ziur asko mozkortu egin zara barrero ere eta ama jo egin dozu beste behin. Nik behintzat ez zaitut barrero erosiko.

Eta aldendu egin zan, beste susmorik hartu barik.



ARTOAREN JATORRIA

*I*ndiarrak Ipar Ameriketako mendi eta lautadetan bizi ziran garaietan gertatu zan pasadizo hau. Egun hareetan gerrateak luzeak izaten ziran, indiarrak alkarren aurka burrukan gizaldiz gizaldi ere ibilten ziran askotan. Ez egoen beraz, batetik bestera nasai ibiliterik; edozein bidaiariari arerioen zelatari zalakoan, eraso egiten eutsielako.

Halan eta guztiz ere, andra zahar behartsu bat herriz herri ebilen bere lobe-agaz. Onartuko ebazan tribu baten bila ebilzan, izan ere, ez eukien nora joan. Baina inon ez ebezan hartu gura.

Egun baten herri txiki batera heldu ziran, eta hango indiarrak suaren inguruan jazartera eta eurekaz batera jatera gonbidatu ebezan. Tribuko buruzagiak esan eutsan andra zaharrari:

—*Gura badozue, geugaz geratu; goseak bildurtzen ez bazaitue, behintzat. Lurralde honeetan ez dago ehiza askorik, baina daukagun janari apurra guttion artean banatuko dogu.*

—*Gitxigaz asko daukagu guk —erantzun eban andra zaharrak—, eta gainera, neuk ere zuei laguntzeko lan egin daiket. Umeak zainduko dodaz zuek janari bila zabilzen bitartean.*

Biharamunean, egunero egiten eben lez, gizonezkoak ehizara, eta andrazkoak fruituak eta landarak batu eta ura hartzera joan ziran. Umeak bakarrik geratu ziran. *“Zeinen ondo, egun osoa daukagu jolasteko, nagusiak aspertu baga!”*, inoen. Baina zer janik ez eukien... Gurasoak ez ziran gauera arte ehizatik edota fruituak batzetik etorten, eta euren urdail txikiei oso luze egiten jaken eguna.

Egun haretan luze ihardun eben umeak jolasean. Nekatzen hasi ziranean, andra zaharrak deitu egin eutsen. Oso harrituta hurreratu ziran beregana.

—Amama zertan dibarduzu? —itaundu eban ume batek.

—Arto abia nabil zuentzat prestatzen —erantzun eban andra zaharrak lapiko handi baten ore lodiari eragiten eutsan bitartean.

Umeak inoiz holangorik ikusi barik egozan. Baina, probatu ebenean, danak eskatu eben gehiago. Ase arte jan eben. Ondoren, andra zaharraren inguruan jazarri ziran, txitak oilalokearen hegopean kukiltzen diran antzera, eta andrea istorio zoragarriak kontatzen hasi zan.

Handik aurrera egunero egiten eben gauza bera. Andra zaharraren artoari esker ez ziran gosez egoten, eta gainera, oso istorio interesgarriak kontatzen eutsezan.

Igaro ziran hilabeteak, eta andra zaharrak gero eta nekatuago egoala emoten eban. Halan ere, egunero prestatzen eutsen janaria umeei. Egun baten indarrik ere ez eukan ia jagiteko, baina, egun horretan ere bere lobak ahiz betetako lapikoaren ondoan ikusi eban eguerdian. Orduan, amamak esan eban:

—Artoa erein dot, eta berehala hazi da, baina ureztatu egin behar da eta bedarrak kendu. Zuk eta beste umeak arduratu beharko dozue lanaz.



31

Bere azken berbak izan ziran, baina ahia prestatzen jarraitu eban artaburuak heldu bitartean. Egun horretan, lobeak dendan sartu zanean, amama ez egon han. Inork ez eban handik aurrera sekula ikusi: arto bilakatu zan.

Gaur egun, artaburu bat bere orriz inguratuta ikusten dozuenean, zidarrezko hari batzuk ikusiko dozues: ume indiarrek inoiz goseak egon ez eitezan artoa erneazo eban amama zahar zintzoaren uleak dira.



SUA ZERUAN

*O*rain dala urte asko, asko eta asko gizakiak ez ekien Eguzkia zer zan, artean ez egoalako Eguzkirik. Gizakiak gauak eta egunak Lurra, Iretargia eta izarrei begira emoten ebezan. Izarrak hodeien atzean bizi ziran erraldoi batzuen begiak zirala uste eben; eta Iretargia, begien artean handiena, zeruko jabea zala. Esan beharra dago antzinako aldi hareetan ez zirala geziak ezagutzen, eta ez piztiak ez txoriak ez zirala gizakien bildur. Kakatua mototsdunak eta papagaio ñabarrak jolasean ibiltzen ziran baruza, hostaia berdearen artean; erreketan zisne baltzak egiten eben uger, eta kanguru buztan luzeak gizakien banbuzko txosnetara hurreztatzen ziran euren kumeakaz. Inork ez eban pentsatu ere egiten otso okelajalaren edota txakur basatiaren bildur izatea. Halan ere, piztiak euren artean askotan hasarratzen ziran.

Egun baten, kurriloak eta emu deitutako hegazti hankaluzeak lautadan ibiltera urten eben. Guztiak dakie emu ederraren hankak kurriloarenak baino birritan luzegoak dirala. Normala dan lez, kurriloa atzean geratzen hasi zan, eta horrek hasarretuazo egin eban.

—*Adiskide, ez hain bizkor ibili!*—egin eban oihu kurriloak.

Baina emuak ez eutsan erantzun: berak ez eban arineketan egin gura, bai-

na ezin eutsen bere hanka luzeei eutsi. Alperrik esan eutsen hanka luzeei: “Geldi!”. Arineketan jarraitzen eben eta aurrera eroen txoria haizearen abiadan.

Kurriloa asko hasarratu zan, eta bere laguna iraintzen hasi zan. Emuak ezin izan eban hainbeste irain jasan, atzera egin eban eta bere pikuaz, harria baizen gogorra eukan eta, kolpe bat emon eutsan kurriloari. Honek kolpea alboratu eta arineketan aldegin eban. Halan ere, ez eban inoiz ahaztu emuaren eraso. Emuaren habiaraino joan zan, honen arrautza handietako bat hartu, eta gorantz bota eban bere indar guztiaz.

Arrautzea airean bueltaka hasi zan, eta zeruko langile erraldoiak zeru gorenean egindako orbel pilo baten gainean jausi zan. Arrautzea lehertu egin zan, bere gorringo distiratsua zabaldu, eta orbel piloa sugar bizi batek hartu eban. Sortu eban argitasuna hain handia zanez, halango argi bizia begien aurrean ikusten ohituta ez egozan gizaki eta piztiak itsu geratu ziran ia. Zeruaren jabe zan erraldoia ere itzartu egin zan.

Lurrera begiratu eban, eta asko poztu zan; Eguzkiaren argitasunean Lurra birritan ederragoa zan.


—*Ederra da benetan!*—egin eban oihu—. *Iraun daiala holantxe beti!*

Eta zeruko suari so gelditu zan. Suak egun osoan emon eban bizi-bizi argia; baina gauean amatatzen hasi zan. Polito-polito hodeien atzean desagertuz joia zan sugar txiki batzuk besterik ez zan ikusten. Erraldoia bildurtu egin zan:

—*Txarto gabilz, txarto! Sugar guztiak amatatzen badira, zelan iziotuko dogu sua gero?*

Kontu handiz hurreratu zan orbeletara, sugarretako bat hartu, eta hodei baltz batez estaldu eban. Gaua Lurrera jaitsi zan, eta gizakiak loak hartu ebazan.

Baina erraldoia ezin zan lokartu.



LB

—*Nire laguntzaileak, lanera!* —agindu eban erraldoiak.

Iretargiak eta milaka izarrak egin eben dirdira zeruan berehala. Erraldoirik gazteenak ziran.

Orbela batzen emon eben gau osoa. Piloa mendi bat baizen handia izan zanean, jabeak sugar bat bota eban gainean, eta bere anai-arrebakaz batera putz egiten hasi zan. Sugarra gero eta handiago eta gorriago bilakatu zan, eta azkenean, suaren dirdirak egundoko argitasuna hartu eban.

Gizakiak esnatu egin ziran eta esan eben:

—*Begira, eguzkiak barrero egiten dau dirdira zeruan!*


Eta lanera joan ziran.

Harrezkero gauero ihartuten dabe erraldoi langileak zeruko jabeagaz lanean. Eurak batzen dabe orbela eta putz eginez iziotzen dabe eguzkia goizero. Baina iretargi-erraldoia ez da ahazten egunero sugar bat hartu eta hodei baltz batez estaltzeaz. Eta gizakiak nasai lo egin eien eta beharrera joateko tertzioz jagi eitezana, egunsentia baino lehen gizakiak iratzartzeko agindua emon eutsan erraldoiak oilarrari; bide batez esan daigun oilarrak beti bete dauala oso ondo bere zeregina.

Goizero ekialdea argitzen hasten danerako, oilarrak teilatura igoten dau, hegoei eragin eta deiadar egiten dau:

—*Kukurruku! Kukurruku! Itzartu zaitzeze guztiak, Eguzkiak urten dau eta!*

Eta zelan ba ez gara poztuko, Eguzkiak ekarri deusku eta gizakioi eta munduari berotasuna eta bizitza!



ZER DALA ETA ITZI EUTSAN ASTOAK KANTATZEARI

*A*ntzin-antzina, dinoenez, tenorerik onenak baino hobeto kantatzen eban astoak.

Egun baten basapizti guztiak alkartu ziran. Eta lehoiak, guztien Erregeak, itaundu eban:

—*Zein da zuen artean ederrena?*

—*Neu, neu* —egin eban oihu astoak berehala.

—*Oso ondo; zeu zara ederrena. Baina zein da indartsuena?*

—*Neu, neu* —egin eban oihu astoak barrero, beste piztiak ahoa edegi aurretik.


—*Konforme* —esan eban lehoiak—. *Eta zein da astakiloena?* —itaundu eban ondoren Errege burutsuak, oraingo honetan ere astoak erantzungo ebala aldeztu aurretik jakingo baleu lez.

—*Neu, neu* —esan eban beste behin astoak agudo, besteren bat aurreratu-ko ete jakon bildurrez edo.



Pizti guztiak barre-algaraka hasi ziran orduan, eta asto gizajoak, lotsatuta, bere ahots zoragarria galdu egin eban.



*I*ndonesiarren, japoniarren, arabiarren, indiarren, australiarren eta italiarren herri-ipuinez osotutako liburua. Leku urrutetako jendeak gordetako kontakizunak dira, eta geuregana heldu dira, mundu guztiko gizakiak oso antzekoak dirala erakusteko.



- 1 Ipuin Unibertsalak
- 2 Zirkuko Itzalak
- 3 Gabonetako Ipuinak
- 4 Basoan
- 5 Bibliako Istorioak
- 6 Mixina



Zorionak Bilduma